

**LIBURUAK**

**Izenburuak:** 'Leontzio eta pijama izarduna', 'Leontzio eta bost tximeletak', 'Leontzio eta bota gorriak', 'Leontzio eta puxika biribila' eta 'Kuku, Leontzio!' **Egilea:** Jo Lodge. **Itzulpena:** Idoia Arruti. **Argitaletxea:** Ibaizabal.

**Eukene Herrera**

IBAIZABAL ARGITALETXEKO LITERATURA SAILEKO ARDURADUNA

«Haurrei literaturara lehen hurbilketa bat egitea da helburua»

Lehoikume bat da Leontzio. Oihanean bizi da bere hiru lagun minekin. Haurrak bezala, txikia da, eta mundua deskubritzen ari da etengabe. Liburu bakoitzean gauza berriak ezağutuko ditu, eta bilaketa horretan lagunduko diote bai lagunak, baita irakurleak ere. Guztiek elkarrekin, jolas egiten, ikasiko dute.

**Nor da Leontzio?**

Haurrei aurkeztu nahi diegun lagun berri bat da Leontzio, lehoikume txo bat. Haurrek bezala, mundua ezağutzeko eta jolasteko gogo bizi dauka. Oihanean bizi da, eta haren lagunak ezağutzeko aukera izango du ere: Lili hartza, Luze jirafa eta Tximi tximinoa.

**Gauza berrien bila arituko da beti.**

Hainbat kontzeptu ikasten eta bilatzen ibiliko da Leontzio. Izan daitzke koloreak, hainbat forma, zenbakiak ikasi edo estanpatuak desberdintzen asmatu. Lagunekin jolasten dabilela aurkituko dio, eta umeei gauzak bilatzeko eta harekin ikasteko aukera emango die.

**Zenbat liburuk osatzen dute bilduma?**

Formatu txikiko lau liburuk eta handiago den bosgarren batek. Lau liburu txikiak kartoizkoak dira, ertz borobilekin, haurrek min har ez dezaten, bat eta hiru urte bitarteko haurrentzat da, gurasoeekin edo klasean irakaslearekin irakur dezaten. Liburuak koloretsuak dira, deigarriak, politak. Erakargarriak dira haurrentzat.

**Bosgarrena desberdina da, beraz.**

Guztiek dituzte azal-hegal moduko batzuk, hortik tira egiteko. Baina *Kuku, Leontzio!* liburuak jolas egitekoa da batez ere. Testu erraza du,

errepikakorra, errimekin, hizkuntza musikaltasunarekin. Jolasteko liburuak deitzen dio, tiraka egiteko hainbat elementu dituelako. Leontzio eta lagunak ezkutaketa ibiliko dira. Tira eginda, elementuak agertu eta desagertuko dira. Funtsean, umeei txikitatik gogoko duten jokoa da ezkutaketa, eta liburuan ere hala ibiliko dira.

**Zein da liburuaren helburua?**

Haurrei literaturara lehenengo hurbilketa bat egitea da xedea. Jolasean bitartez guztia, umeei gehien gogoko dutena hori baita: jolastu, liburuak atzera eta aurrera ibili... Animaliak umeen gogokoak dira, eta horrela erakarri nahi ditugu literaturara.

**LIBURUA****'Maitagarria eta desioa'**

Bai neskato berezia da, ez du itzalik. Egun batean estualdi batean dagoen maitagarri bati lagunduko dio. Maitagarriak, esker onez, dohain bat emango dio: edozein desio beteko du; maitagarri hitza emango dio. Neskato horrek opariaz gozatzeko behar duen denbora luzeari buruzko ipuina, nola emakumetu eta zahartuko den. Eta, bitartean nola itzarongo dion maitagarriak, egunero fidel-fidel bisita egiten jarraituta, desioa noiz bete zain.

**Mariasun Landa**  
Argitaratzailea: **Elkar**

**BIDEO JOKOA****'Sports Resorts (selects)'**

Eguzki printzez beteriko uhar-te bat, eta... kirola, kirola eta kirola; 12 denetara. Familiarekin edo lagunekin lehiatzeko jokoak. Pertsona gehiagorekin jokatzeko proposa, lau lagun batera lehia daitezke, bakkarik ere goza daitezkeen arren. Edozein mailako jokalaritza aritu daitezke, pantailan kirol bakoitzaren nola jokatu ulertzeko hainbat argibide baitaude. Altxa sofatik edo eserita gertatu, baina ekiozu *Sports resorts (selects)*-en kirolei.

**Wii**  
Argitaratzailea: **Nintendo**